



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2018

### KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

1. Kirol federazioen programak .....	3
2. Kirol lehiaketan antolaketa .....	4
3. Kirol lehiaketetan parte hartzea.....	5
4. Mugimend.....	6
5. Kultura Ondarea saria .....	7
6. Kultura Ondarearen ikerketa .....	9
7. Kultura Ondarea balioztatzea.....	11
8. Itsas Kultura-Ondarea .....	13
9. Museok eta bildumak .....	15
10. Artxibo Publikoak.....	17
11. Artxibo Pribatuak .....	19
12. Liburutegietan irakurketa sustatu .....	21
13. Liburutegietako liburu funtsak .....	23
14. Liburutegietan teknologia berriak .....	24
15. Musika .....	25
16. Arte eszenikoen sustapena .....	27
17. Dantza ekoizpena.....	29
18. Ikusentzunezko garapena .....	31
19. Ikusentzunezkoa produkzioa.....	32
20. Antzerki produkzioa .....	34
21. Arte plastikoak .....	36
22. Gure Arte sariak .....	37
23. Literatura argitalpenak.....	39
24. Euskadi Literatura sariak.....	40
25. Irudi sorkuntza .....	41
26. Sorkuntzako kultura guneak (Sorgune).....	42
27. Bitartekotza eta berrikuntza kultura eta gizarte arloan (Bitartez) .....	43
28. Kultura sorkuntza .....	44
29. Jaialdiak.....	46
30. Alderdi politikoen fundazioak.....	47
31. Kultura publikoa.....	48



32. Euskara gizarte bizitzan (Euskaingintza) .....	49
33. Euskara hedabideetan (Hedabideak).....	51
34. Euskara gaztelaniazko hedabideetan .....	53
35. Euskara entitate pribatuetan (Lanhitz) .....	54
36. Euskara ingurune digitalean.....	56



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kirol federazioen programak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko urtarrilaren 24koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita euskal kirol-federazioen 2018ko kirol-programak finantzatzeko dirulaguntzetarako deialdia. (EHAA, 2018ko otsailaren 1a, 23. zk.).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/02/1800575e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/09/1804681e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadiko kirol-federazioak urteko programa gauzatzeko finantzatzea, itzultzekoak ez diren dirulaguntzen bidez.

287/2000 Dekretua, abenduaren 26koa, euskal kirol-federazioen kirol-programetarako dirulaguntzak ematea arautzen duena betetzeko.

Helburua da Euskadiko kirol-federazioei laguntza ekonomikoa ematea, euren kirol modalitateari dagozkion autonomia erkidegoko eremuko kirol jarduera eta lehiaketak bultzatzeko, kalifikatzeko, baimentzeko, arautzeko eta antolatzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

46 federaziok dirulaguntza jaso zuten 2018an. Bat kanpoan geratu zen, eskaera ez aurkezteagatik.

Eragina gizartean: helburuak bete ditu dirulaguntza honek, beraz, erabat erabilgarria dela adierazten dugu.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskaerak	47	46



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kirol lehiaketan antolaketa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko ekainaren 20koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen eta arautzen baitira 2018. urteko goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko dirulaguntzak. (EHAA, 2018ko uztailaren 5<sup>a</sup>, 129. zk.).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/07/1803501e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/11/1805906e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzen laguntzeko dirulaguntzak dira.

Helburua da goi mailako kirola sustatzea, batetik, Euskal Herrian oinarritzko kirola garatzeko funtsezko faktorea delako eta, bestetik, estatu-mailako eta nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan errepresentazio-funtzioa duelako.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

32 eskaera egon ziren eta 28k dirulaguntza jaso zuten. Lehiaketa guztiak goi-mailakoak dira eta estatu-mailako edota nazioarteko kirol esparruan eragin handia sortu dute.

Eragina gizartean: helburuak bete ditu dirulaguntza honek, beraz, erabat erabilgarria dela adierazten dugu.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskaerak	32	32



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kirol lehiaketetan parte hartzea**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko ekainaren 26koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita dirulaguntzak emateko erregimena 2018an egingo edo hasiko diren kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, eta emakumezkoen liga nazionaletan, kategoria absolutuan. (EHAA, uztailaren 9a, 131. zk.).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/07/1803555e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/01/1900074e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, zuzendutako dirulaguntzak dira. Emakumezkoen liga nazionaletan, kategoria absolutuan, parte-hartzea ere diruz laguntzen da.

Helburua da euskal kirola nazioarteko esparruan egotea, eta kirol-jarduera sustatzea ere bai.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

30 eskaera egon ziren eta 26k dirulaguntza jaso zuten. Nazioarteko lehiaketetan parte hartu zuten klubak eta kirolariak izan dira eta horren ondorioz, kirol esparruan eragin handia sortu dute.

Eragina gizartean: helburuak bete ditu dirulaguntza honek, beraz, erabat erabilgarria dela adierazten dugu.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Eskaerak	23	30



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Mugiment**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko urriaren 10ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita diru-laguntzak emateko araubidea pertsona fisikoki inaktiboentzako jarduera fisikoak 2018an antolatzeko, aktibo izan daitezen. (MUGIMENT deialdia).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/10/1805266e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/01/1900393e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Pertsona inaktiboak aktibo bihurtzeko jarduera fisikoak antolatzeko diruz lagundu nahi da, lau aukera hauek zehaztuz:

- 1.– Jarduera Fisikoaren Orientazio zerbitzuak sortzea eta garatzea.
- 2.– Jarduera fisikoak antolatzea parke osasungarrietan.
- 3.– Interes bereziko kolektiboentzako jarduera fisikoak antolatzea.
- 4.– Jarduera fisikoak antolatzea Kirolaren Europako Astearen.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Adierazlea	Eskatutakoak (eskabideak)	Emandakoak (eskabideak)	Emandakoa (€)
Jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuak	19	18	81.373,48
Parke osasungarrietan jarduera fisikoak antolatzea	7	6	26.189,49
Interes bereziko kolektiboentzako jarduera fisikoak antolatzea	16	13	61.118,48

21 udalek eta mankomunitate batek jaso dute laguntza deialdi honen bidez. Horrez gain, deialdi honek eragin pedagogikoa ere badu, kirol sistemak gizartearen beste arlo batzuekin batera jarduera fisikoaren sustapenean elkarlanean lan egiteko beharra agerian utziz. Bide baten sorreran gaude, politika berriak eskatzen dituena, eta dirulaguntzak ere bide beretik joan behar dira.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Aurretik erreferentziarik ez genuenez, ez zegoen aurreikuspenik.



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kultura Ondarea saria**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 3koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen eta arautzen baitira 2018. urteko Euskadiko museo eta bildumetarako diru-laguntzak.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/12/1706063e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802873e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da «Kultura Ondarea» saria iragarri eta arautzea. Sari horren helburua da saritzea Euskal Kultura Ondarearen ezagutza zabaltzen hobekien laguntzen duten 2017-2018ko ikasturteko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako, Batxilergoko lehenengo mailako eta Lanbide Heziketako Erdi Mailako Heziketa Zikloetako lehenengo mailako ikasleak.

«Kultura Ondarea» Sariaren helburua da hezkuntza alorreko eremu guztietan ekimena, berrikuntza, ekintzailetarako gaitasuna, sormena eta gizarte garapena bultzatu, Euskal Kultura Ondare materialaren zein inmaterialaren forma guztiak ezagutzuz eta balioa emanaz. Zehazki:

- a) Kultura berritzailea eta Euskal Kultura Ondarearen gaineko ezagutza ikertu, berreskuratu eta eraikitzeko esfortzuaren aintzatespena bultzatzea.
- b) Euskal Kultura Ondarea ezagutzera ematea, euskal hezkuntza-sistematik eta euskal hezkuntza-sistamarako.
- c) Hezkuntza alorrean ekimen berritzaileak martxan jartzea bultzatzea.
- d) Euskal Kultura Ondareari atxikitako ezagutzaren balorazioan eta eraikuntzan gazteek duten papera aitortzea.
- e) Gazteen artean tresna teknologikoen erabilera sustatzea jabari publikoko kultura- eta hezkuntza-edukiak sortzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurten ere, hiru herrialdeetako ikastetxeek (18) deialdiari erantzun diote. 66 bideo egiten parte hartu dute, eta bideo honetan, hobeto edo okerrago, landu dituzten gaiak hurbildu diete Kultura Ondarea irudikatu eta berataz gogo eta egitera.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Kultura ondarea sariak	3	3





1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kultura Ondarearen ikerketa**

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko urriaren 17koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko 2018ko ekitaldiko diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802705e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/09/1804560e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da 2018 eta 2019 artean urte anitzeko garapena duten eta hauei buruzko ikerketa-proiektuak diruz laguntzea: elementu material eta/edo ez materialak, berauen identifikazioa eta, hala dagokionean, euskal kultura-ondarearen zati bezala berrezagutze formala eta babes juridikoa ahalbidetzen duten balioak dituztenak. Laguntza hauek jaso ahal izateko nahitaezko baldintza da proiektu hauek ikerketa basikoaz haratago doan helburua izatea, modu horretan horien emaitzak ikertzen den kultura-ondareari aplikatu ahal daitezen. Baldintza hori justifikatzeko dugu ikerketa basikoak jada badauzkalako Jaurlaritzaren doktoretza aurreko eta ondorengo beka eta laguntzen deialdiak, eta, gainera, Foru Aldundiek urtero dituzte kultura-ondarearen, arkeologikoa hain zuzen ere, ikerketa basikorako berariazko diru-laguntza programak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2. artikuluan (Diruz lagun daitezkeen jarduerak) babesean 11 proiektu lagundu dira.

13 proiektu aurkeztu dira, eta horietatik 12 diruz lagundu ahal izan dira, beraz, bi geratu dira dirulaguntzarik gabe. Haietatik batean eskatzaileak ez zuen betetzen titulazioaren baldintza eta bestean proiektuak ez du lortu gutxienezko puntuazioa.

Proiektuek arte-, paleontologia-, arkeologia- eta industria-ondarearen ezaugarri zehatz batzuk dute helburu. Halaber, azpimarratzekoa da diruz lagundutako proiektu bat bere balizko inpaktuagatik euskal Kultura Ondarearen babesteko metodologian; izan ere, bere helburua da aztertzea nola txerta daitezkeen genero ikuspegia Euskal Kultura Ondarearen katalogazioan eta babesean. Mota horietako proiektuek inoiz baino interes gehiago dute orain, zeren ikuspegi hori esplizituki adierazita baitago onartu den maiatzaren 19ko Euskal Kultura Ondarearen 2/2019 Legean.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Kultura ondarearen babesaren alorrari aplikatutako ikerketa lanak (dirulaguntza kop.)	12	11



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kultura Ondarea balioztatzea**

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 16koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2018-2020 aldirako diru-laguntzetarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari hiperesteka)

Programaren araua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802734e.pdf>

Emate-erabakia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802734e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeak, 106 artikuluan, aurreikusten du Autonomia Erkidegoko eta bere Lurralde Historikoetako Herri Administrazioek duten betebeharra bere eskumeneko lan publikoen aurrekontuen ehuneko bateko balioa gutxienez gordetzeko legean aurreikusitako helburuak betetze aldera.

Arau hori garatuz eman zen 204/1998 Dekretua, uztailaren 28koa, zeinaren bidez diru-atal hori gordetzea erregulatzen duten arauak onartu ziren, eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorriari dagokionez, ahalbidetzen du aurrekontu-kontsignazio bat egitea zeinarekin Kultura Sailak aurrekontu-atal horri lotutako helburuak bete ahal dituen.

Horregatik, eta gordetako diru-atal horretako kopuruak leku egokira irits daitezzen eta egiaz bere helburua bete dezaten, Agindu hau sortu zen, zeinaren bidez diru-laguntzen deialdia egiten den, eta diru-laguntzak eskatzeko eta esleitzeko modua eta baldintzak arautzen diren "ehuneko bat kulturala" deitutakotik datorren horretarako gordetako diruarekin.

Bestalde, eraikitako Kultura Ondarea eta eremu arkeologikoen zaintzak, hiri-ingurunean duen eraginarengatik, neurri bateratuak hartzea exijitzen du.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2. artikuluan (Diruz lagun daitezkeen jarduerak) babesean 21 proiektu lagundu dira.

Aurrekontua betearazteari dagokionez, 21 proiektu onuradunei eman ahal zitzaizen diru-laguntzen zenbatekoa 2.400.000 euroko aurrekontuaren limitea baino handiagoa zen. Horregatik, deialdiaren Aginduko 17. artikuluan aurreikusitako hainbanaketa egitea beharrezkoa izan zen.

Erabilgarritasunari eta eragin sozialari dagokionez, ikusi da proportzionalki erakunde publikoek



aurkeztutako eskaeren kopurua handitu egin dela pribatuenen aldean. Horregatik, esan dezakegu proiektu horiek eragin eta interes sozial handiagoa izango dutela. Gainera, ikusi da balioan jarri nahi diren jarduenen eta kultura-ondasunen tipologiaren aniztasuna handitu dela modu interesgarrian.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diru-laguntzen kopurua	35	21



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Itsas Kultura-Ondarea**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko urriaren 17koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko 2018ko ekitaldiko diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/10/1805183e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/01/1900032e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Emango dira itsas-ondarearen arloan kultura-balioa duten elementuak sustatzeko, sendotzeko, konpontzeko eta bere erabilerara egokitzeko; jarduera horiek, betiere, bateragarriak izan behar dira elementu horien kultura-balioekin.

Bi diru-laguntza lerrotan emango dira laguntzak, jarraian adierazten den bezala:

## 1. lerroa:

- a) Egurrezko ontzietan obrak egitea, musealizazioa helburu: honako hauek lagunduko dira diruz: azterlanak, segurtasunerako obrak eta sarbidea, kartelak, ..., ez berritzeko lanak edo haren egiturazko elementuak (motorrak, belak ...).
- b) Egurrezko ontziak tresnatzea eta prestatzea, jendeari zerbitzua emateko. Segurtasun- eta nabigazio-ekipamendua, balioan jartzea eta egiturazko lanak, nabigaziorako beharrezkoak direnak,
- c) Lehorreko instalazioen garrantzia nabarmentzea: ontziolak, lonjak eta ontziraletuak... Hauek sartzen dira atal honetan: Aurretiazko beharrezko azterlanak irizpideak finkatzeko; eranskin itsusgarriak kentzea; zenbait eraikin erabiltzeko moduan jartzea; kartelak; panelak eta gainerako elementuak egin beharreko balioespenari edo musealizazioari berez dagozkionak.
- d) Egurrezko ontziak konpontzeko eta egokitzeko gastuak. Barne hartuta ontziaren nabigaziorako beharrezkoak diren lizentzia eta baimenak izapidetzeko gastuak. Esku-hartzeak ez die ondare-balioei kalte egingo.

2. lerroa: Ekitaldiak, egurrezko itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko eginak: erakusketak, ikuskizunak, ...



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018ko ekitaldia diru-laguntza programa honen lehenengoa izan zen. Emaitza ez zen oso ona izan, nahiz eta hasiera batean teorikoki eskari handia egon. Horren arrazoiak, sektorearekin izan ditugun harremanengatik jakin dugunez, askotarikoak dira. Alde batetik, urtea oso aurreratua zegoenean egin zen. Honen ondorioz, eta lehenengo urtea izaki, erakunde eta partikularrek ez zuten inolako aukerarik izan planifikatzeko, hain denbora txikian ez baitziren gai proiektuak planifikatu eta gauzatzeko. Beste alde batetik, deialdian planteatzen ziren baldintzetako batzuek asko mugatzen zituzten laguntza eskatzeko aukerak, ordainketa handiak egin behar baitziren (esan dugunez, aurreikusita ez zeudenak), gastuen zati txiki bateko diru-laguntza jasotzeko. Honegatik guztiagatik, Aginduaren artikuluetan aldaketak egin dira, bai egituran (maila formalean), baita ordaindu daitezkeen jardueri dagokienez eta jarduera horien balorazioan ere. Horretarako, sistema argiago eta errazago baten hautua egin da, bereziki mota hauetako administrazio-prozedura hauetara beti ohituta ez dauden hartzaile batzuentzat.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Kultura Ondarea babestu, ikertu, sustatu eta zabaltzea	14	14



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Museoak eta bildumak**

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 3koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen eta arautzen baitira 2018. urteko Euskadiko museo eta bildumetarako diru-laguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802732e.shtml>

[http://www.euskadi.eus/contenidos/resolucion\\_definitiva/res\\_2018\\_000\\_0037506/eu\\_def/adjuntos/ebazpena%20resolucion.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/resolucion_definitiva/res_2018_000_0037506/eu_def/adjuntos/ebazpena%20resolucion.pdf)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza hauen bidez, jarduera-ildo estrategiko hauetan eragina izango duten proiektuak egin daitezen bultzatu nahi da:

- a) Bilduma kudeatzea eta hari buruz jakiteko modua hobetzea.
- b) Erakusketa iraunkorrak hobetzea eta aldi baterako erakusketak antolatzea.
- c) Funtzio hezitzailea, ludikoa ea kulturala sustatzea beren jardun-eremuan.
- d) Beren jarduera-eremuarekin zerikusia duen ezaguera sortzea eta hedatzea.
- e) e) Kudeaketa hobetzea eta berrikuntza sustatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Araututako dirulaguntzak lortze aldera, 24 entitatek bultzatutako 44 proiektu aurkeztu eta onartu ziren balorazio tramiteari begira.

Emandako 40 dirulaguntzak onuradunak izan litezkeen 35 museoetako 24ri eman zaizkie – deialdiaren arauaren arabera Erregistroan izena emana duten museo guztiak ezin dira dirulaguntzen onuradunak izan-, beraz esan daiteke dirulaguntza hauek museoen jardueran oro har eragin handia izan duela, 2018ko Aurrekontuen memorian aurreikusitako dirulaguntzen kopurua (43) baino txikiagoa bada ere.

Emandako dirulaguntzen diru-kopurua 700.000 euro izan zen.

Dirulaguntzak eskatzen dituzten museo eta bilduma gehienak tamaina txiki eta ertaineko entitateak dira, Euskadiko esparruan banatzen direnak. Gainera, entitate horiek beraien inguruko komunitateekin batera, museo eta bildumen funtsak osatzen dituzten ondare materiala eta immateriala hedatzeko



jarduerak bultzatzen dituzte, aldi berean beraiek kultura balioak berreskuratzen eta babesten lagunduz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Bilduma kudeatzea eta berau ezagutzeko sarbidea hobetzea	12	5
Erakusketa iraunkorra berritzea eta aldi baterako erakusketak antolatzea	13	12
Didaktika eta hedapen jarduerak	14	17
Ezagutza sortzea	2	3
Kudeaketa hobetzea eta berrikuntza sustatzea	2	3





#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Artxibo Publikoak**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko apirilaren 25koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, toki-erakundeei beren artxibo sistema jartzeko edota sendotzeko diru-laguntzak emateko modua arautu eta horretarako 2018. ekitaldirako deia egiten duena.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802546e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/10/1804844e.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak Euskadiko Artxibo Sistemaren artxibo politikan ezinbesteko garrantzia dauka eta epe erdi eta ertainera artxibo zerbitzuak egonkortu eta sendotzeko ezinbesteko tresna da.

Helburuak hauexek dira, besteak beste, ondoko jarduerak bultzatzea: a) Artxibo-zerbitzuak abian jartzea, antolatzea (artxiboko dokumentuak sailkatu, ordenatu eta deskribatzea) edota mantentzea; b) Deskribatzeko tresnak sortzea edo hobetzea; c) Dokumentu-funtsak baloratzea eta aukeratzea; d) Kultura-zabalkunderako artxibo-jarduerak bultzatzea; e) Mankomunitatutako artxibo-zerbitzuei eustea; f) Artxibo-dokumentuak digitalizatzeko jarduerak burutzea.

Deialdiaren zenbatekoa 298.000 eurokoa izan da, eta aurkeztutako programa bakoitzak gehienez ere aurrekontuaren %50a jaso du, muga 20.000 eurokoa delarik.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018an, 107 erakunderen 107 eskaera jaso dira eta guztira 75 programa izan dira diruz lagundutakoak. Gero eta tokiko erakunde-mota gehiago dira (udal, mankomunitate, kontzeju, administrazio-batzar) programak aurkeztera animatzen direnak.

Alde horretatik emaitzak oso positiboak dira, eta gizartean duen eragina begi bistakoa da. Mota honetako programen arrakasta segida izatean datza. Ildo horretan, udal txikiek egiten ari diren ahalegina -bitarteko urriak izanagatik- nabarmendu behar da. Halaber, esan behar da erakundeak, poliki bada ere, jabetuz doazela artxibo-zerbitzu antolatu eta eraginkorra edukitzeak duen garrantziaz, bai erakundearentzako eta baita herritarrentzako ere.

Behin proiektuak abian jarri eta gero, lortutako emaitzak oso onak dira: a) Toki-administrazioako erakundeen esku dagoen dokumentu-ondare aberatsa "betiko" antolatuta gelditzen da; b) Diru-



laguntza deialdien bidez, toki-erakundeak dokumentu-ondareaz arduratzera eta sentsibilizatzen animatzen dira, eta behin antolatuta edukita funts horiek gizartera hedatzera: digitalizatutako dokumentuak irudiak Interneten bidez edota erakusketen bidez zabalduz; c) Dokumentu ondua herritarren eskura jartzen da, eta webgunearen bidez (Dokuklik), munduko edozein txokotara zabaltzen da.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspen a	Emaitza
Udal artxiboa sortzea edo hobetzea	46	48
Funts dokumentalen balorazioa	3	4
Artxibo-dokumentuak digitalizatzea	23	29
Kultura zabaltzeko programak	3	7
Mankomunitateko artxibo-zerbitzuak mantentzea	7	0

Proiektu batzuk adierazle bat baino gehiagorekin elkar daitezke (22).



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Artxibo Pribatuak**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko ekainaren 13koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko diru-laguntzak ezarri eta deialdia egiten duena 2018ko ekitaldirako.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803326e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/09/1804616e.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak artxibo politikaren atal egonkor bat indartzen du epe luzera: artxibo-funtsen jabe pribatuei laguntzea (Euskal Herriaren historia berezia dela-eta bereziki ugariak baitira).

Helburuei dagokionez, aurreko urteekin alderatuta ez dago aldaketarik: partikular, familia, erakunde, elkarte eta abarrekin lankidetzan aritzea haien jабegoko artxibo funtsak antolatzeko eta ondoren hedatzeko, batez ere, Euskadiko Artxibo Historikoaren webgunearen bidez.

Programa gehienek emaitza izaten da artxiboaren inbentarioa, horixe baita baliabide nagusia ondoren kontserbazio edota digitalizazio programak diseinatu ahal izateko.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018ko ekitaldirako aurrekontu orokorretan 170.000 euroko diru kopurua bideratu zen programa honetara, 17 eskatzaileek 17 eskaera aurkeztu zituzten eta horietatik 16 proiektu diruz lagundu ahal izan ziren. Edonola ere, aurkeztutako programa bakoitzeko diru-laguntzak ezin izango du gainditu 20.000 euroko zenbatekoa.

Mota honetako programa baten arrakasta (kontuan izanda horrek dakarren inpaktua gizartean, eta jasotako eskaeren kopurua eta kalitatea) jarraitzean eta egonkortasunean datza. Helburua da artxibo jabeak eta erakunde partikularrak (fundazio, sindikatu, elkarte, etab.) animatzea haien artxiboak zaintzera eta erabilgarri jartzera, gizarte osoaren mesedetan.

Lortutako emaitzak oso pozgarriak direla iruditzen zaigu, egiten den inbertsioa kontuan hartuta. Lortutako emaitza batzuk hauexek dira: 1) Betiko antolatzen da jabe pribatuen esku dagoen ondare dokumental aberatsaren zati bat; 2) Ekimen pribatua sektore honetan inbertitzera animatzen da; 3) Sare publikoetan ondarearen alde oso esanguratsuak integratzen dira, eta herritarren esku jartzen; 4)



Jaurlaritzaren ikerketa zerbitzua aberasten da Internet bidez, Dokuklik jada funtsezko erreferentzia bihurtu da Euskadiri buruzko edozein ikerketa egiteko orduan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Artxibo-funtsak antolatzea eta artxibo-tratamendua hobetzea	5	10
Informazioa zabaltzea eta Badator informazio-zerbitzuan integratzea	5	12
Artxibo-funtsak digitalizatzea	6	12

Proiektu batzuk adierazle bat baino gehiagorekin elkar daitezke.



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Liburutegietan irakurketa sustatu**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 16koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira irakurketa sustatzeko eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegi publikoen zerbitzuak erabiltzeko diru-laguntzak.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802821e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/10/1805358e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua zera da: haur eta gazteen artean irakurketa eta liburutegi publikoen erabileraren sustapena eta garapena lantzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

150 eskaera espero baziren ere azkenean 156 izan dira burutu direnak. Eskaera guztiak epe barruan sartu dira.

Beste jarduera guztiak, aldiz, era egokian betetzen ari dira, liburutegiei eta beren zerbitzuen eskaintzei lotuta baitaude. Horrela, ipuin kontalariak (bere aldaera guztietan) eta irakurketa klubak dira liburutegietan gehien antolatzen dituzten jarduerak.

Horrekin batera, aipatu antolatutako ekintzen emaitzak eta horiekin lortutako eragin soziala ona izan dela. Irakurketa sustatzea eta liburutegi zerbitzuak erabiltzea liburutegi publiko ororen egintzen ardatz dira.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Profesionalei zuzendutako prestakuntza	1	0
Irakurketa jarduera osagarriak	142	150
Liburuari lotuta erakusketen, hitzaldien, etab.-en antolaketa	15	20
Literatura-lehiaketen antolaketa	15	20
Liburuetara eta liburutegietara hurbiltzeko kanpainak	2	5



Adierazle guztietan aurreikuspenak bete eta gainditu dira, lehenengoan izan ezik (formakuntzari dagokiona). Azken urteetan errepikatzen ari den kontua da. Ikusten denez, udalek gastua gutxitzea erabaki dute liburutegietako profesionalei zuzendutako prestakuntzari dagokionez. Horren ildotik, Liburutegi Zerbitzuak adierazleak berriro definitzeko unea izan daitekeela uste du.



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Liburutegietako liburu funtsak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 3koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2018. urtean Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako liburu-funtsak berritu edo/eta handitzeko dirulaguntzak emateko modua arautzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802499e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/11/1805544e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programak bi arlo ditu, bata, liburutegi sortu berrientzako lehen funtsetarako eta bigarrena indarrean dauden liburutegiei liburu berriez hornitzeko.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen duten liburutegi publikoak liburu-funtsez hornitzea. Sareko liburutegietako liburu-funtsak berritu eta handitzeak, liburutegietara informazio bila bertaratzen diren erabiltzaileen beharrak asebetetzea ahalbidetzen du. Irakurketarako materialen eskaintza erakargarriagoa bihurtzen da erabiltzaileentzat eta eragin zuzena du liburutegietako maileguen eta liburutegietako bazkide kopurua handitzean.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntza deialdiko liburutegi berrien arlora 2 eskaera aurkeztu ziren eta biei eman zitzaien diru-laguntza.

Funtsak berritzeko 184 eskaera aurkeztu ziren, bat ez zen onartu arauak ez betetzeagatik eta beste 183k jaso zuten diru-laguntza.

Horri esker, liburutegiek, beraien funts-katalogoak berritu eta aberastu egin dituzte, argitalpen berrienak erabiltzaileen eskura jarri. Online sarean, 275.000 ale berri sartu ziren 2018. urtean eta EAeko liburutegi publikoetako mailegu kopurua mantentzea lortu da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Liburutegi sortu berrientzako liburu sortak	1	2
Liburutegietako funtsak berritu eta handitzea	180	183



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Liburutegietan teknologia berriak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 16koa, zeinaren bidez arautzen baita Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edota garatzeko diru-laguntzak emateko modua, eta laguntza horien deialdia iragartzen da.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802733e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/11/1805749e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programari esker, liburutegiek elementu teknologikoak eskuratzen eta/edo berritzen dituzte.

Helburua da liburutegi publikoetan informazio teknologien ezarpena eta garapena ahalbidetzen dituzten ekintzak laguntzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu programak 254 ordenagailu eta 460 eskaner, irakurgailu optiko eta abarren berriztatzea aurreikusten zuen.

100 eskaera izapidetu dira, eta horien bidez programak erabiltzeko lizentziak (5), tabletak (14), ordenagailuak (141), inprimagailuak (37), ebooken irakurgailuak (27), barra kodeen irakurgailuak (22), wifirako instalazioak (12), auto-mailegurako makinak (1), eskanerrak (3), usb-ek (103), diska gogorrek (2), sakelako telefonoak (3), lapurretaren aurkako sistemak (16), telebistak (8) eta beste elementu batzuk (91) erosteko laguntza eman dira.

Horrek hobekuntza nabarmena suposatu du bai liburuzainen eguneroko lanean baita erabiltzaileen kontsultetan eta funtsen erabileran ere. Beraz, herritarrei zuzendutako liburutegi zerbitzuen eskaintzaren onerako izango da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ordenagailuak berritzea.	254	141
Eskanerrak, irakurgailu optikoak, etabar berritzea.	460	344





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Musika**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, musika jarduera profesionaletarako dirulaguntzak emateko modua arautzen duena. (EHAA 102 zk., 2018ko maiatzaren 29a).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802823e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806144e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez, musika jarduera profesionalak sustatu nahi dira, hain zuzen ere, partituren edizio inprimatuak, musika banakako proiektuak, musika ekimen enpresarialak eta musika programazioa.

2018an programa honen gehieneko zenbateko orokorra 530.000 eurokoa izan zen hasierako deialdian, modalitateen arabera honela banaturik:

- 30.000 €, partiturak argitaratzeko
- 155.000 €, banakako musika proiektuak
- 205.000 €, musika proiektu enpresarialak
- 140.000 €, musika programazioa

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetarako aurreikusita zeuden baliabide ekonomiko guztiak erabili dira, eta haren bitartez 77 pertsonak edo entitatek jaso dute musika jardueretarako laguntzak, beraz, esan ahal dugu, programa oso eraginkorra dela.

<i>Arloa</i>	<i>Eskaerak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Aurrekontua</i>	<i>Emandakoa</i>
Partiturek argitaratzeko	8	4	30.000 €	29.000 €
Banakako proiektuak	39	35	155.000 €	155.000 €
Ekimen enpresarialak	21	15	205.000 €	205.000 €
Musika programazioa	13	13	140.000 €	140.000 €



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Lagundutako musika proiektu kop. urtean	56	68
Lagundutako musika kontzertu kop. urtean	60	65



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Arte eszenikoen sustapena**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko urtarrilaren 17koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2018. urtean arte eszenikoak sustatzera bideratutako programak garatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 19 zk., 2018ko urtarrilaren 26a).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/01/1800454e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/07/1803503e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honek arte eszenikoetako arloan sustapenera zuzendutako programa ezberdinak jasotzen ditu, zehazki teatroaren eta dantzaren prestakuntzara, sustapenera eta erakusketara zuzendutakoak, antzerkiko eta dantzako profesionalen prestakuntza bultzatzeko, arlo publikoa eta pribatuaren arteko elkarlana erraztuko duen bidea eskaintzeko eta dantza eta kaleko arteen ikuskizunen erakusketa sustatzeko aurrerapausoak eman nahi dira sektorearen profesionalizazioan eta, gainera, herritar guztiei bermatu kalitateko kultura-eskaintza eskuragarri eta kalitatekoa.

2018an programa honen gehieneko zenbateko orokorra 523.000 eurokoa izan da, dirulaguntza modalitate bakoitzera honako kopuruak zuzendu direlarik:

## a) Prestakuntzarako laguntza-motak:

- 88.000 euro antzerkiko profesionalen prestakuntzarako. (83.000 euro prestakuntza integralerako, 5.000 euro arlo zehatzetako prestakuntzarako)
- 70.000 euro dantzako profesionalen prestakuntzarako.

## b) Sustapenerako laguntza-motak:

- 80.000 euro EAE-ko antzokietan egoitza-proiektuetarako.

## c) Erakusketarako laguntza-motak:

- 125.000 euro kaleko arte eszenikoen ikuskizunen programak garatzeko.
- 160.000 euro SAREA Dantza Zirkuitua garatzeko.



## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetarako aurreikusita zeuden baliabide ekonomiko guztiak erabili dira, eta haren bitartez 16 prestakuntza egitasmo, erakunde publiko-pribatuen arteko elkarlanean oinarritutako 5 egoitza programa, kaleko arte eszenikoen 51 udal programazio eta SAREAko zirkuituan parte hartu duten 36 konpainia lagundu izan dira.

<i>Modalitatea</i>	<i>Eskaerak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Aurrekontua</i>	<i>Emandakoa</i>
Antzerkiko profesionalen prestakuntza	12	9	88.000 €	88.000 €
Dantzako profesionalen prestakuntza	26	7	70.000 €	70.000 €
Antzokietan egoitza-proiektuak	5	5	80.000 €	80.000 €
Kaleko arte eszenikoen ikuskizunen programak	54	51	125.000 €	125.000 €
SAREA Dantza Zirkuitua	36	36	160.000 €	159.685 €

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikus pena	Emaitza
Antzerkirako prestakuntza integral, ikastaroetan izandako ikasle kop. urtean	75	180
Antzerkirako prestakuntza berezitua, ikastaroetan izandako ikasle kop. urtean	30	45
Dantza profesionalentzako etengabeko prestakuntzarako eta laguntzarako proiektu kop. urtean	10	7
Antzerki konpainien egoitza-programa kop. urtean, antzoki publikoetan	4	5
Kaleko ikuskizun eszenikoetako kontratu kop. urtean	175	213
Lagundutako dantza-emanaldi kop. urtean	70	84



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Dantza ekoizpena**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2018. urtean Dantza sustatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 102 zk., 2018ko maiatzaren 29a).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802822e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806123e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez, dantza jarduerak sustatu nahi dira, hain zuzen ere, honako jardueramodalitate hauek bultzatuz: koreografia sorkuntza laburrak, konpainiak sendotzea, ekoizpena eta profesionalentzako etengabeko prestakuntza eta laguntza.

2018an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 420.000 eurokoa izan zen, modalitateen arabera honela banaturik:

- Dantza lanak I: 70.000,00 euro
- Dantza Ekoizpena II: 220.000,00 euro
- Dantza konpainiak sendotzea: 130.000,00 euro

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetarako aurreikusita zeuden baliabide ekonomiko guztiak erabili dira, eta haren bitartez 24 pertsonak edo entitatek jaso dute dantzarako laguntzak, beraz, esan ahal dugu, programa oso eraginkorra dela.

<i>Modalitatea</i>	<i>Eskaerak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Aurrekontua</i>	<i>Emandakoa</i>
Dantza lanak I	16	6	70.000 €	70.000 €
Dantza Ekoizpena II	16	10	220.000 €	220.000 €
Dantza konpainiak sendotzea	10	8	110.000 €	130.000 €



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako dantza proiektu kop. urtean	20	24



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ikusentzunezko garapena**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2018. urtean, ikus-entzunezkoen arloan garapenaren aldeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 103 zk., 2018ko maiatzaren 30ekoa).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802848e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/01/1900335e.pdf>

